

DEZENTRALIZAZIOA. Ministro Kontseiluak onartu ditu Jean-Pierre Raffarinnek Konstituzioari proposatu aldaketak

Departamenduaren gaia erreferendum bidez trenkatzeko aukera sor liteke

Frantziako Konstituzio aldaketak bidea irekiko die tokiko galdeketen antolaketei



MARTIN BUREAU / EPA

Jean-Pierre Raffarin Frantziako lehen ministroa Frantziako Asanblea Nazionalean, joan den astean.

ALDAKETAK

Zentralismotik dezentralismora

Raffarinnek konstituzio hainbat artikuluren aldatzea proposatzen du Estatuaren egitura errotik aldatzeko.

DEZENTRALIZATUA. Lehen artikuluari, Frantzia «Errepublikazatiazina» dela dioenari, eskaldi bat gehituko zaio: «Antolaketa dezentralizatua du».

ERREGIOAK. Egitura hauek ez ziren agertzen Konstituzioan. 1972an sortuak ziren, baina 30 urteren buruan ez dira sartuko 72. artikuluan, udalak eta departamenduak bezala.

DIRU AUTONOMIA. Estatu eta tokiko kolektibitatearen arteko «eskumen transferentzia oro araberrako diru iturriekin batera» etorriko dela dio Raffarin proiektuak. Haatik, eskualde batetik bertzerako «desberdintasunen» orekatzeko helburua du Frantziako Gobernuak.

Eneko Bidegain | BAIONA

Esperantza berriak biharko frustrazio diren geroak erranen du. Baina Ipar Euskal Herriko sektore zabal batek berriz ere aukerak ikusten ditu zenbait aldarrikapen bidea irekitzeko. Datorren urte hasieran Frantziako Konstituzioa aldatuko da, dezentralizazio legea dela eta. Aldaketa horrek tokiko erreferendum erabakigarriak antolatzeke aukera emanen du. Horrek bidea ireki liezaioke euskal departamenduaren inguruko galdera hautes-ontzietan trenkatzeko aukerari, instituzioek horretarako borondate-rik baldin badute.

Jean-Pierre Raffarin Frantziako lehen ministroak atzo goizean aurkeztu zuen, Ministroen Kontseiluan, konstituzio aldaketa proiektua. Kontseiluak dezentralizazioa erreformatuko lukeen konstituzio legea onartu zuen. Dezentralizazioak, oroz gainera, eskualde eta departamenduentzat eraginen ditu aldaketak, Estatuak botere eta eskumen gehiago transferituko baitizkie.

Xede horretan ez dira aipu, Ipar Euskal Herria bezala, lurraldetasun onarpen bat aldarrikatzen duten egoerak. Ez eta ere, hizkuntza gutxituak ukatzeko erabiltzen den bigarren arti-

EZTABAIDA

Hautetsi eta eragileen iritzien bila

Jean-Pierre Raffarinnek prozesu laburra nahi du legearen aldatzeko. Datorren martxorako aurkeztu nahi ditu eskumenen transferentziak eta tokiko espermentazioak posible egiten dituzten legeak. Hemendik urtarilerira iritzi biltze fase bat abiatuko da. Bihartik hasi eta urtarrilaren 18a arte, Frantziako erregio guztietan Asatasun lokalen jarraldiak iraganen dira. Hautetsien, elkarteetako buruen eta funtzionarioen iritzia jasoko dute jarraldi horietan eta, ondotik,

kuluaren aldatzea ere. Haatik, leiho bat ireki daitekeela iduri luke. Tokiko kolektibitateek –udalek, departamenduek edo eskualdeek– tokiko erreferendum erabakitzaileen antolatzeke gaitasuna ukanen lukete, Raffarinnek ideia obratzen bada. Horregatik da, azken egunetan, euskal departamenduaren eskaera berriz iratzarri. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak gai honen inguruko erreferendum baten antolatzea erabaki lezake. Eskaerak jadanik jaso ditu.

Daniel Poulou diputatu lapurtarra euskal departamenduaren alde agertua da behin

baino gehiagotan. Joan den astean, departamenduaren inguruko balizko erreferenduma sostengatu zuen. «Ipar Euskal Herriko gehiengo nagusi batek euskal departamendua sortzea nahi badu, zergatik ez da galdera hori pausatuko?» galdetu zuen.

«Estatutu bereziko kolektibitateak»

Bertze ate batzuek ere ireki dezakete Ipar Euskal Herriaren onarpen instituzionalaren bidea. Teorian behintzat. Raffarinnek testuak «lurraldeen birmoldaketak» baimentzen ditu. Horren arabera, posible litzateke

Parisen zehaztuko dituzte dezentralizazioaren inguruko xedeak, jendearen iritzia kontuan hartuz edo gabe.

Azaroaren 26an Bordelen iraganen da gisa horretako eguna. Ipar Euskal Herriko Kontseiluak proposamenak aurkeztuko ditu, baina oraindik ez dute zehaztu zer eskaera eramango duten hara. Hautetsi abertzaleek egitura honi galdetuko diote euskal departamenduaren sortzea, Konstituzioaren bigarren artikuluen aldatzea eta laborantza ganberaren gauzatzea eskaera zerrendan ezar ditzan. Hemendik hara alderdi eta hautetsien eztabaidagai nagusia dezentralizazio prozesua izanen da, dudarik gabe.

Korsikako bi departamenduek bakar bat osatzea eta Alsazian berdin. Horiek dira ematen diren adibideak. Baina, testuaren arabera, departamendu bat bitan banatzea zilegi litzateke.

Eta hori baino urrunago, «legeak estatutu bereziko kolektibitate bat sor» dezake. Hori gerta liteke Konstituzioaren 72. artikuluen aldaketa onartuz. Kasu honetan ere gehienbat Korsikari pentsatzen da. Baina ez da baztertzekoa Ipar Euskal Herriari ere horrelako estatutu bat onartzea. Hori erreferendum bidez trenkatu behar litzateke. Tokiko erreferendum horren antolatzearen

erabakia legebiltzarraren esku legoke.

Raffarinnek txostenaren berriz atal garrantzitsu batek «esperimentaziorako eskubidea» aipatzen du. Kolektibitateei, «esperientzia» gisa, eskumen berezi batzuk ematea aurreikusten da. Horrek, «estatutu bereziari» gehituz, Ipar Euskal Herriko balizko departamenduari, orain arteko departamenduei baino eskumen gehiagoren emateko aukera zabalik utziko luke.

Zein eskumen eskura dezake horrelako instituzio batek? Galdera airean dago eta batzuek eta bertuek beren proposamenak aurkeztuko dituztela pentsa daiteke. Euskal Herriko Berdeek, adibidez, eskumen zabaleko departamendu baten aldeko jarrera agertu zuten joan den astean.

Teoriatik errealtatera jauzi bat badago, ordea. Ipar Euskal Herriari, orain arte piztu izan diren esperantza guztiak zapuztu dira, instituzio alorreko eskaera konkretuei ezezko erantzuna eman zaielako beti. Aitzakia: Hego Euskal Herriko «bortizkeria egoera». Arrazoiak: «Errepublika bat eta zatiezina da». Eta printzipio horrek indarrean jarraituko du, Jacques Chirac estatuburuak azpimarratu bezala.